

KOSTUEN EGITURA



Badakigu proiektu hau egin ahal izateko diru asko inbertitu beharko dugula, baina prest gaude gure ametsa lortzeko. Gastu guztiei aurre egiteko, bostak mailegua eskatu dugu. Lehen esan dugun bezala, pentsatu dugu Hotel Izarra kokatzeko lekurik onena Valentzian dago, bilatzen dugun guztia izan baitezake, eguraldi ona, hondartzak, bisitatzeko leku ugari, oso leku turistikoa dela udan... Baina Valentzian hotela egitea erabaki dugun beste arrazoi garrantzitsua batengatik da, Deienen familiak lur erabilgarria, leku egokian eta oso handia duela horretarako, eta, jakina, familiarena denez, askoz merkeago aterako zaigu. Gero, Amaia, lehen esan dugun bezala, arkitektoa da, eta, beraz, ingeri ugari ezagutzen ditu. Haiekin batera, hotela nahi dugun bezala diseinatu dezakegu, gainera, merkeago atera dezkegu zeren eta bere lagunak dira eta bera ere lan egingo duelako proiektuan.

Amaitzeko Nerea ekonomialaria da, gastuen kontu guztiak eramango dizkigu eta gai ekonomikoan aholkuak emango dizkigu.

Ikusi ahal izan da gure ikasketei esker edo gure familiagatik hotelak printzipio batean merkeago atera dakigukeela, ezta askoz gehiago ere, plano guztiak egin ondoren eraiki beharko litzatekeelako eta hori dela benetan garestiena aterako zaiguna, gure hotelak material onenak eta modernoak izatea nahi dugulako.

Alde batetik, ez dugu hotel bat egitea kostako zaigun prezio finkorik, baina badakigu asko izango dela, baina, bestetik, hileru ordaindu beharko ditugu, alde batetik, kostu finkoak eta kostu aldakorak.

- **Kostu finkoak:** Gastu horiek saihestu ezin ditugun ordainketei dagozkie: establezimenduaren alokairua edo hipoteka, gure langileen soldata, kontratatutako aseguruak eta zergak. ... Horrela, okupatutako gela bakoitzeko, mantenua ordaindu beharko dugu.
- **Kostu aldakorak:** Erreserbatutako gela arabera aldatzen direnak dira. Horrela, okupatutako gela bakoitzeko, mantenua ordaindu beharko dugu. Garbiketa, oheko arropa eta beste zerbitzu batzuk, hala nola gosaltzeko menua, kategoria honetan sartzen dira.
- **Kostu erdialdagarriak:** kostu horiek zerbitzu batzuk dira, hala nola elektrizitatea, eta horien zenbateko osoa gure gela salmentaren arabera izango da. Faktura bat izango dugu, zenbateko finko batekin, baina, hotelaren okupazioaren arabera, haren balioa handitu egingo da.